



262. zenbakia

• Maiatza 2026 •

pulunpe

ULTZAMAKO UDALA



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



URAREN ZIURTASUNA

Laura Casielles - Idatz&Mintz, 78 - 2025

Euskaratzailea: Xabier Boveda (armiarma.eus, 2026)



Ezagutzen duzu
iturburua. Badakizu
ura dagoena.
Baduzu ura
egarri zarenean.
Deskuidatzen ez bazara,
baduzu ura
egarria bera
baino
lehenago ere.

Gau batzuetan gortina alboratu
eta hari begira geratzen zara.
Zuhaitzek, harkaitzek, bidaiari ba-
tek ostentzen dute,
baina haren kokapen zehatza

aspalditik dakizu buruz.
Ezagutzen duzu iturburua.
Badakizu ura dagoena.
Fede hori
ez da hausten. Zure egarria
gozoa da.



Hautatu



3 hedabide

Km

komunikazioa

*Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde*

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametza.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Lourdes Iraizotz, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Pol Dance Ultzamako Frontoian

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira maiatzaren 11n bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Gizarte Zerbitzuak, gertutik*

08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

13

Elkarrizeta. *Isa Saetz zinemagilea*



16

Historia. *Alkozko San Salvatore ermita (II)*

20

Zer ikusi. *Apirilean*

21

Kolaborazioa. *Cederna Garalur*

22

Aspaldiko kontuak. *Etxalekuko Etxeberriko maisterrak*

25

Ardo freskoa. *Hil ala bizi*

26

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

28

Ekimenak. *Harrera programa*

30

Elkarrizketa. *Mikel Legarra, Izarra tanatorioa*

34

In memoriam. *Isabel Igeltz Azpirotz*

35

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Martxoa*

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, 35 urte eskualdean

Joan zen urtean Gizarte Zerbitzuek 40 urte bete zituzten Nafarroan, eta Ultzamaldeko Mankomunitateko langileak ere Iruñean izan ziren Nafarroako Gobernuak egin zien aitortzan. Ultzamaldean, 1991n jarri ziren martxan, aurrekaria Odietako Udalak abian jarri ondoren. Ale honetan haiei hurbildu eta hobeki ezagutu nahi izan ditugu

1991n jarri zen martxan Anueko, Atezko, Basaburuko, Lanzko, Ultzamako eta Odietako udalek osatuta. Aurretik, Odietako eta Ultzamako udalen zonalderako Gizarte Arretazuen, administrari batekin, bi familia langilerekin, gizarte langilearekin eta animatzaile batekin. Orduan, Harrera eta Orientazio programa, Etxez Etxeko Zerbitzua eta Interbentzio Komunitario-Prebentzio Programa abiatu ziren; eta, ondoren, gehiago sortzen eta zerbitzua handitzen joan zen.

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, gaur, lau programa ditu: Harrera eta Orientazioa, Haur eta Familia Programa, Autonomia Programa eta Gizarteratze Programa. Ezagunak dira Autonomia programaren barruan dagoen aipatutako Etxez Etxeko zerbitzua; eta, Gizarteratzen Programan dagoen Lan Babestukoa. Baina, gainera, programa guztietan transbersala den Interbentzio Komunitarioa dugu; eta, Gizarte Zerbitzuetatik kanpo baina Mankomunitate barruan dagoen Berdintasun Zerbitzua. Banan-banan joanen gara.

1. Harrera eta Orientazioa

Arantxa Mariñelarena Zubillaga administraria da lehenengo atea, eta ondoren dator Harrera eta Orientazioa. Herritarrak informazio bila, prestazio baten eskarian edo tramitazio batean laguntza eske joan daitezke, adibidez, eta horri erantzutea da helburua. Beste batzuetan, eskaria zabalagoa izan daiteke eta programa batera edo kanpoko zerbitzua batera bideratuko lukete. Txaro Castañares Larrea da atal honen gizarte langilea: "Demagun herritarrak Etxez Etxeko zerbitzua nahi duela, orduan informazioa ematen zaio eta baldintzak betetzen baditu Autonomia Programara deribatzen zaio. Gaiak eta aukerak oso zabalak dira: oinarritzko errenta, guraso bakarreko familiak, dirulaguntzak tramitatzea, genero indarkeri kasuak eta abar luze bat". Horregatik, lehenengo baloratu egin behar du: egoera bat premiazkoa den detektatu; eta, administrazio langileak ebatz dezakeen edo arreta teknikoa behar duen zehaztu.

Premia egoerak ebaluatzea eta egiaztatzea, eta giza-txostenak ere osatzen ditu.



Uxo Gamio, Marian Zozaya, Virginia Iragui, Marian Etxegoien, Josune Ibarra, Oihana Peñagarikano, Txaro Castañares, Amaia Paz eta Miren Huarte



2. Haur eta Familia Programa

Haur eta Familia Programaren helburu nagusia adin txikiaren ongizatea bermatzea da, betiere haurraren interes goren erdigunean jarriz eta familiei laguntza eskainiz. Familia da haurren garapenerako lehen espazioa eta garrantzitsua, horregatik, programa familiarendako tresna da, haurren behar afektiboak, hezitzaileak eta sozialak behar bezala asetzeko. Askotariko egoerak bizi ditzakete, eta, batzuetan, zailtasun horiek haurren egunerokoa eragina izan dezaketelako. Prebentzioa da programa honen oinarria, egoerak garaz antzematea, babesgabetasun egoerak saihesteko edo arintzeko, eta familiari baliabide egokiak es-

kaintzeko. Baina batzuetan entzutea edo informazioa eta orientazio txikiak ematea baino ez da. Uxo Gamio Equioz, programako gizarte hezitzailea da: "Estigma handiagoko duen programa da. Gizarte zerbitzuak etxean sartzen badira haurra kendu behar dutela pentsatu ohi da eta hori ez da horrela. Hori garbi utzi nahi dugu. Gu herritarrei begira gaude eta gure helburua laguntzea da. Bi pertsona gaude, gizarte langilea den Txaro Castaños eta, ni, gizarte hezitzailea". Sarean lan egiten dute, tratatu onen alde, ikastetxe eta osasun etxearekin elkarlan estuan: "Haurren eta familien inguruko egoerak askotan konplexuak dira eta lankidetzak aukera ematen du koordinatzeko, prebentziorako

eta arrisku egoerak murrizteko".

Gizarte zerbitzuen esku hartzea, arrazoi desberdinengatik izan daiteke eta beti kasu bakoitzera moldatzen dira: "Batzuetan gehiago egoten gara haur edo nerabearekin eta besteetan gurasoekin. Familia osoarekin lan egitea izaten dugu helburu. Etxe barruan nahiz gure bulegoan esku hartu dezakegu. Garrantzitsua da gu laguntza bezala ikustea, horretarako gaudela". Lan-ildo nagusien artean: helduei zailtasunak kudeatzen laguntzea, komunikazioa eta harreman osasuntsuak sustatzea; eta, haurrak aisialdiko, ludotekako eta herriko jardueretan bultzatzea.

3. Autonomia programa

Autonomia pertsonala sustatzea, menpekotasun egoeren prebentzioa eta auto-zaintzarako zailtasunak dituzten pertsonen premiei erantzutea du helburu. Horregatik, pertsonen beren ohiko bizimoduarekin ahalik eta denbora gehien jarraitzeko aukera ematea da helburu nagusia, baina, beharrezkoa izanez gero, etxebizitzatik kanpoko bestelako baliabideak eskuratzeko aukera ematea ere. Horretarako, menpekotasun egoerekin lotutako orientazioa eta laguntza eskaintzen dira, baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa, eta menpekotasun balorazioak. Josune Ibarra Sancho-tena, gizarte langilea: "Guk tramitea martxan jartzen dugu. Tramitazio horretatik ebazpen bat ateratzen da: ez-menpekotza, lehenengo mailako dependentzia, bigarrenetako edo hirugarrenetako. Behin ebazpen horrek pertsonak erabaki behar du menpekotasun legeak eskain-

tzen dizkion aukerak. Laguntza ekonomiko bat izan daiteke edo, graduaren arabera, etxez etxeko zerbitzua, eguneko zentroa, zahar egoitza, eta zerbitzu eta prestazio horien guztien artean aukera ezberdinak daude eta konbinazio ezberdinak".

Programa honen barruan Etxez Etxeko Zerbitzua eskaintzen da. Zerbitzua gizarte langile batek eta bost familia langilek osatzen dute, eta udal baliabide bat da, laguntza behar duten pertsonen beren etxean bertan arreta emateko. Adina, osasun arazoak, menpekotasuna edo unean uneko krisi egoerak direla medio eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago. Josune Ibarra: "Modu askotako lanak egiten ditugu: babes psikosoziala eta sozio-sanitarioa; oheratuta dauden pertsonen garbiketan lagundu edo agindutako sendagaiak ongi hartzen. Haien autonomia sustatzea

eta egunerokotasunean ahalik eta hoberen egotea dugu helburu. Bertze aldetik, etxeko-lanetan ere laguntza eskaintzen dugu".

Zerbitzuak 35 urte ditu, 27 herritarrek jasotzen dute, 23 etxetan. Alicia Ilarregi, Marian Zozaya, Virginia Irargui, Pakita Barriola, Oihana Peñagarikano, Marian Etxegoien eta Saioa Baztan dira etxez-etxeko langileak. Virginia Irargui: "Familiak oso eskertuak agertzen dira haiek eman ezin dezaketenen arreta ematen dugulako eta garrantzi ikaragarria ematen diote guk eskaintzen dugun horri". Oihana Peñagarikanok familiaren kulpaa arindu nahi du: "Gu sartzen bagara familiak menpeko pertsona abandonatu edo ez duela zaintzen sentitzen du. Inportantea da azpimarratzea hobetzera egiteko dela. Batzuetan laguntza gehiago behar da denok ondo egoteko, bai laguntza ematen duena, familia, baita jaso behar duena ere".

4. Gizarteratze programa

2020an hasi zen ofizialki, nahiz eta aurretik gauzak egiten ziren. Inklusioa helburua duen esku-hartze prozesuak egiten dira. Horrela, pertsonarekin batera, bere egoeraren diagnostiko bat egiten da, hainbat arlo aztertuz: ekonomia, alojamendua, lana eta formazioa, arlo pertsonala, soziala, osasuna. Ondoren helburu batzuk markatzen dira: Zertan hobetu nahi dut? Nola lortu daiteke aldaketa hori ematea? Zer baliabide daude hori lortzeko?

Miren Huarte Jaka da programa honen arduraduna eta gizarte hezitzailea: "Pertsonarekin batera arlo ezberdinak aztertzen dira eta zaugarritasun bat badu edo ikusten baldin bada lanketa bat egin daitekeela helburu batzuk, ekintza batzuk eta eginkizun batzuk markatzen dira berarekin". Asistentzialismotik aldendu eta pertsona bere prozesuaren protagonista izatea nahi da, eta hezitzailea bidelaguna da.

Programa honen barruan lanaren bitartez inklusioa lortzeko Lan Babestuko baliabidea dago: Lanaren bitartez, gizarteratze prozesua martxan jarriko da. Horretarako, jarraipen individualizatua egiten da eta lanean dauden bitartean formazioa jasotzen dute.

Gutxietan baina landa eremuak batzuetan abantaila du

Mankomunitateak sei udal eta 47 herririk hartzen du oso sakabanatua dagoen eremu batean. Hori oztopoa da batzuetan, baina baita abantaila ere, Txaro Castañares: "Guregana etortzeko mugitu behar da eta guztiak ez dute kotxerik. Hori desabantaila da. Bestetik, ordea, hurbiltasuna eskaintzen dugu: gutxi gara, hau txikia da eta segituan galdetu dezakezu,

Interbentzio komunitarioa: Transbersala

Prebentzioa helburu du eta programa guztiei begiratzen die. Horregatik, hiru profesionalak eramaten dute: Haur eta familia programako Uxo Gamio, Gizarteratze programako Miren Huarte eta Amaia Paz Vallejo, Berdintasun teknikaria. Miren Huarte: "Arreta individualizatuetatik aparte badago kolektibo eta programa guztietan prebentzioa bultzatzeko betebeharrak. Hori Interbentzio Komunitarioa programatik egiten da, transbertsalean". Elkarlanean aritzen dira zonaldeko erakundeekin, zerbitzuekin, profesionalekin, elkarteekin eta

komunitateko pertsonekin. Uxo Gamio: "Prebentzio taldea osatzen dugu eta ikastetxeko Guraso Elkar-tearekin harremana dugu, Osasun Etxearekin eta bestelako erakundeekin. Sareak laguntzen du". Gizarte-premiako egoerak gertatzeko arriskua saihestera bideratuko ditu jarduerak eta zerbitzuak. Horretarako, arlo desberdinetan prebentzioa, sentsibilizazioa eta formazioa bultzatzen ditu: zahartze aktiboko ekintzak eginez eta jubilatuak elkarteari lagunduz, gaztelarazko klaseak bultzatu migrante sareak ere osatzeko, familientzako heziketarako tailerrak eta nerabeentzako laguntza espazioak sortuz, adibidez.

Berdintasun Zerbitzua:

1. Ultzamaldea osatzen duten udal-letan genero-ikuspegia txertatu, baliabideak jarriz eta prestakuntza eskainiz.

2. Indarkeria matxistarekin amaitzea.

Ez da arreta ematen, errealitatea aztertu eta hori gizarteratzea da helburua.

3. Emakumeen bizi-baldintzak hobetzea.

Emakumeek eta gizonek beren bizitzak garatzeko aukera berdinekin izatea, denak ez garelako baldintza berdinetatik abiatzen. Enplegurako aukerak, pobrezia tasak, zaintza

lanen zamak parekatzeko eragitea.

4. Berdintasuna eraikitzeke herri-tarrak eta erakundeak inplikatzeko.

Berdintasunerako bidearen diseinuaz, koordinazioaz, kudeaketaz, jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratzen da. Horretarako Ultzamaldekoko III. Berdintasunerako planaz (2026-2032) baliatzen da ibilbide-orri bezala. Amaia Paz Vallejo da Berdintasun teknikaria: "Plana Berdintasun Zerbitzuaren tresna nagusia da, datozen sei urtetarako plangintza delako. Lau erronka jasotzen dira eta horiekin lan egiten dugu. Uxo eta Mirenekin egiten dudana elkarlana ere erronka horietan txertatuko litzateke"

eskatu". Hala ere kexu da zerbitzua orokorrean gutxi baloratzen delako: "Beste gauza batzuk gehiago ikusten dira, kirola, adibidez, eta oso ongi dago, baina Gizarte Zerbitzuetan inbertitzea gehiago kostatzen da. Ikusten ez den barneko lan asko dago".

Gizarte Zerbitzuetan, orokorrean, itota daudela maiz salatzen da. Horretaz galdetuta, Miren Huartek erantzun digu: "Badakigu beste leku batzuetan nola dauden eta alde horretatik pribi-

legiatuak izan gaitzke. Hemen arreta hurbila eskaini dezakegu eta artatzeko dugun pertsona zerrrenda ez da Iruñea batean dutena (kopuruaz). Hori errealitate bat da. Hemen beste zailtasun batzuk ditugu, dispertsioarengatik. Egun berean ezin ditut hitzordu asko jarri, joan etorrian denbora galtzen delako. Baina, hala ere, norbaitek hitzordua eskatzen badu, aste batetik bestera lortuko du. Eta asko egokitzen gara eskatzen digutenera".



Urte gutxi barru, **GERTA DAITEKE**,
Lodosako Pikillook nahi badituzu, zuk
zeure etxean landu behar izatea.

ZURE ESKU DAGO HORI EZ GERTATZEA
ZURE EROSKETAN, AUKERATU NAFARROA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA † **NAFARROA**
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

San Martin de Unx eta Etxauriko ibilaldiak

San Martin de Unx herrian izan gara hilabete honetan Denok Bat jubilatuen elkarteko kideak, eta hango ardoez gozatzeko parada ere izan dugu. Hilabete honetako kronika egingen dizuegu orriotan

Apirileko txangoa San Martin de Unx aldera egin genuen, herri handia izenez eta izanaz garai batean. 1920an bazituen 1.800 biztanle baina behera joan da geroztik, 60. hamarkadan 1.000 biztanletara jaitsi zen kopurua, eta orain 350 besterik ez ditu. Herrian dauden etxe kopuruan nabaritzen da garai batean biztanle gehiago zirela.

Gure lehen bisita Maximo Abete upategira egin genuen, han Rakelek erakutsi zigun beren nondik norakoa, nola hasi ziren eta nola jarraitzen duten, Gerinda inguruko lurrari garrantzia emanez eta berak ezagutu duen paisaia mantenduz ahal duten neurrian. Ardo gorria eta beltza eman zizkigun dastatzeko, txorizo eta saltxitxo gurpil banarekin.



Rakelen azalpenak arretaz entzuten ▲

Upategia herrira sartu aurretik genuenez, autobusez joan ginen herriko goi partera, eliza nagusia ikustea.

Javier gida lagun genuela, San Martin de Tours eliza ikusi genuen eta haren historia ezagutu genuen bere eskutik. Data zehatza eman



Elizatarian gure gida, gogotsu azalpenak ematen ▲



Bazkari giro alaitsuan ▲

zigun: 1.156 urtean izan zen elizaren kontsakrazioa. Bere ezaugarri nabariak dira XII. mendeko kripta erromanikoa eta elizaren kokapena bera, mendi kaskoan baitago.

Gaur egun herrian hiru eliza eta ermita bat daudela ere kontatu zigun gidak. Upategiez galdetuta, herrian bost upategi daudela azaldu zigun.

Eliza eta kripta ikusi ondoren, herriko etxeak ikustera jo genuen, elize-rako bide aldapatsuan bi aldeetara daudenak batez ere. Plazara iritsi arte oinez ibili ginen, han genuen bazkaria emanen ziguten jatetxea. Txukun berritua eta oso atsegina, Casa Tomas izenekoa.

Adostutako menua genuen, oso goxo eman ziguten jaten, herriko ardoarekin lagunduta. Gustuko bazkaria egin genuen, alajaina.

Bazkal ondoren herrian egindako gozokiak erosteko aukera izan genuen, ia guretzat ireki zuten dendari esker. Inguruan, hain famatuak diren almen-dra "garrapiñatuak" erosteko aukera izan genuen, erroskillak eta esne-gain pastak ahaztu gabe.

Arratsaldean giro ederra zegoen, eta batzuk paseoa egitera, besteak musean eta azken batzuk solasean gelditu ginen. Berandu baino lehen, autobusak hartu eta etxera itzuli ginen beste egun eder bat elkarrekin pasata.

Etxauriko ibilaldiak

Apirilekoko ibilaldiak Etxauri inguruan egin ziren, bai arina eta baita zailtasun handiagokoa ere. Mendi buelta zailenaren kasuan, Etxauri herritik atera eta haitzetaraino igotzea zen egin beharra, goiko bistaz gozatu eta herrira itzultzeko. 12 kilometroko ibilbidea izan zen, eta 700m-ko desnibela zuen.

Ibilbide arinagoa, Ziritzatik Bidaurretara, handik San Cristobal basilizara eta itzulera izan ze egin zuten bidea. 8,5 km-ko ibilbidea, 180 m-ko desnibelarekin.

Bi taldeak beren ibilbidea egin ondoren, elkartu ziren Baternaingo ostatu batean, bazkaria elkarrekin egiteko, ohitura den moduan.

Hurrengoan zahartze aktiboaren jardunaldiari buruz izanen da kronika. Horretaz gain, Baionara eginen dugun txangoa, Etxaleku inguruan izanen dugun mendi ibilaldia eta ariketa berria, TaiChi, probatzeko izanen dugun aukeraz ere joango da datorren kronika. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



▲ Plazako txokoa gurea egin genuen bazkal ondoren



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Euskarazko udako ludotekak egingen dira Ultzaman eta Basaburuan

Euskara Zerbitzuak udako ludotekak antolatu ditu aurren ere, umeei zuenduta. Ultzaman eta Basaburuan izanen dira.

Ultzamakoan zabalduko da lehenengo izena emateko epea, maiatzaren 11tik 15era bitartean. 5 eta 11 urte bitarteko umeei zuzendutako ludoteka izanen da eta abuztuko bi astetan izanen da aukera. Lehenengoa, 17tik 21era, eta, bigarrena, abuztuaren 24tik 28ra. Bietan, goizeko 9:00etatik 13:00etara, Larraintzarko Ikastetxe Publikoan.

Ultzamako udako ludotekan izena emateko esteka hau da: <https://labur.eus/UDAKOLUDOTEKA>

Basaburuan ere izanen da Euskara Zerbitzuak antolatu-tako udako ludoteka. Kasu honetan, 4 eta 10 urte bitartekoei zuzendua izanen da, eta uztaileko azken astean eta abuztuko lehenean egingen da, Oihanzabal eskolan. Kasu honetan, izen ematea ekainaren 22tik 26ra irekiko da ondoko estekan:

<https://labur.eus/UDABASABURUA>

Edozein zalantza izanez gero Euskara Zerbitzura deitu daiteke, 948 30 51 34 telefonora (maiatzaren 7tik aurrera, goizeko ordutegian). Basaburuko udako ludotekaren kasuan, ekainean zabalduko da jardueri buruzko nahiz ordainketen gaineko informazio gehiago.





60 urte bete ditu Larraintzarko ikastetxeak


Urteurren ospakizunetan dago Larraintzarko ikastetxea, izan ere, 60. urtebetetze festa ospatuko dute maiatzaren 9an. Gaur egun eskualdeko ikastetxe handiena denak sei hamarkada bete ditu, eta urte hauek guztietan bertatik pasa diren ikasle, guraso nahi irakasleekin behar bezala ospatzeko egitaraua prestatu dute.

Goizeko 11:00etan herri kirol saioarekin eta errugbi jolasekin ekinen diote jaiegunari. Goizetik, haurrendako puzgarriak ere izanen dira, eta musikaz girotua egonen da Larraintzarko ikastetxea. Eguerdiko 13:00etan dantzarien

ikuskitzuna izanen da, eta ondoren, 13:30ean, Sustraiak eta Kili-Kili proiektuei omenaldia egiteko aprobetxatuko dute hitzordua. 14:00etan euskal kantu bazkaria izanen da, eta arratsaldean, berriz, musika eta zirkus parkea.



- **PSIKOTERAPIA**
- **ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA**
- **ARAZOAK KONPONTZERA
BIDERATUTAKO TERAPIA
LABUR ETA ESTRATEGIKOA**



- **PSICOTERAPIA**
- **ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA**
- **TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA
ENFOCADA A SOLUCIÓN DE
PROBLEMAS**

luzkipisiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Hilerrria berritzen ari dira Muskitzen, eta ur depositua Etxalekun

Hilerriko pareta bat zartatzen hasia zela eta, moldaketa eta berrikuntza lanak egiteko dirulaguntza jaso dute Muskitzen. Tokiko inbertsio planaren iturritik lortu dute laguntza, eta proiektua egiteko fasean dago orain egitasmoa. Horrez gain, komunalen ordenantza berria prestatzen ari da Muskizko Kontzejua, eta datorren urtean lur komunalak enkantean aterako direla jakinarazi dute bertako kideek.

Bestalde, oraindik data zehatzik izan ez arren, aurten ere burduntzi festa egingen dute herrian. Azkekn urteetan bezala, txekorra burduntzian prestatuko dute, eta aitzakia horrekin, egun osoko festa izanen da Muskitzen. Eta beste festa egun bat ere bai agendan: ekainaren 6an ospatuko da aurtengo Muskizko BTTa.

Etxalekun, berriz, ur depositu berria egiteko lanak hasiak dira honezkero, Lakita enpresaren bidez. Obra handia izanen dela aurreikusten dute herrian, eta azaroaren bukaera edo abenduaren hasiera arte luzatuko dira lanak.



Martxan da Lanzko frontenis txapelketa

Urteak dira udaberri aldean frontenis txapelketa antolatzen dutela Lantzen. Aurtengo edizioa martxoaren 21ean abiatu zuten, eta antolatzaileek jakinarazi duteenez, 17 bikote ari dira helduen kategorian jokatzeko, eta sei bikote, berriz, umeen mailan. Herriko Joseba eta Asier Olkoz anaiek eta Oihana eta Saioa Oiz ahizpek antolatzen dute kirol ekimena.

Zozketa bidez erabakitzen dituzte partidak, eta bi bikoteek posible duten egunetan jokatzeko partidak, astean zehar nahiz asteburutan, eguraldiaren arabera. Ekainaren 21ean edo 23an jokatu dute aurtengo finala, eguraldiaren arabera, eta irabazleek medaila bana eramanez dute etxera.





Isa Saez zinemagilea laburmetraia grabatzen ari da Imotzen

Erason bizi den Isa Saez zinemagilea laburmetraia grabatzen ari da Imotzen. Gidoian jasotako irudi gehienak hartu ditu honezkero, eta crowdfunding kanpaina bat abiatuko du finantziazioa lortzeko, *Hostoak eroriko direnean* izena duen lana osatzeko. Bertako herritar askok ere aktore lanak egin dituzte. Prozesuan dagoen lana da hau, baina, gainera, kaleratu zuen azkena: *La Raíz*, Aguilar de Campoo zinema jaialdiko muntaia onenaren saria jaso du

Isa Saez Perez Burgosko herri txiki batean jaio zen eta, besteak beste, Madriilen bizi ondoren, herri txiki batera itzuliko zela argi zuen. Erason bizi da duela ia hamarkada bat, eta handik jarraitzen du zinemagintzan. Orain, Imotzen bertan grabatutako laburmetrai bat ere kaleratu nahi du. Sorkuntza lanarekin batera, ikus-entzunezko irakaslea ere bada Iruñean.

• **Hostoak eroriko direnean (Cuando caigan las hojas) laburmetraia grabatu duzu hemen. Zer kontatu nahi duzu?**

Fikzioa egiten dudan lehenengo aldia da, nik idatzitakoa, eta bi emakumeren historia kontatzen du. Herri batean bizi dira, bat ama da eta herrian jaio da, eta bestea migratzailea da eta herriko adineko gizon bat zaintzen lan egiten du, *interna* moduan. Harreman bat hasi dute eta ez dakite herriari kontatu, beldur direlako. Herrian zer hitz egingen den, haien lanbideetan eraginik izan ote duen, alabak zer pentsatuko duen... Aldi berean maitasunaren lehertze momentu horretan daude non dena posible den. Hemen filma-

tu dugu, Urritzan. Aktoreetako bat Lekunberrikoa da eta *extra* moduan agertzen den jendea bailarako herritarrak dira. Zarrantzen, Erason, Lata-san ere grabatu dugu. Niretzako oso berezia izan da. Hemen, etxe eta talde edo komunitate sentimendu horrekin, non bailara guztiak parte hartu du. Oso ongi pasatu dut. Muntatzen ari gara eta urrian edo urtarrilean estreinatu nahi dugu, distribuzio erritmoak errespetatzeko.

• **La Raíz laburmetraia bitxia da, intimista, zure amonari zuzentzen dizkiozun hitzekin, baina zure familiarrenak ez diren artxibo irudiekin.**

Lotsarik gabeko Memoriak (Memorias Sinvergüenzas) izena zuen tailer-laborategi batean eginga da, Alejo Duplos tutorearekin. Hainbat sortzaile bildu ginen Tabakaleran, Donostian, eta Euskal Filmotekako artxibo irudiak utzi zizkiguten. Artxiboa ohiko pelikulek osatzen dute baina baita familia grabazioek ere. Izan ere, norbaitek etxean filme zahar bat aurkitzen badu, filmotekara eraman dezake digitalizatzeko. Trukean haiek ere kopia bat gordetzen dute. Horregatik filmotekak familiek utzitako hainbat eta hainbat artxibo irudi ditu. Beraz, irudi horiek erabili behar genituen, baina oso bestelako zerbaitetarako, tailerraren helburua LGTBIQ+ memoriari buruz hitz egitea baitzen. Bertan zegoenarekin osatu behar nuen historia hori.



Imozko herritar askok parte hartu dute orain osatzen ari den lanean ▲



Zinema,

Imotzen

• **Beste norbaiten irudiak erabiltzea ez zen hautu bat izan, beraz, baina iruditzen zait horrek ere ematen dio-la esanahi bat.**

Bai, niri ere gustatzen zait. Norbaitek bere familia albuma erakusten didanean, buruarekin jolasten dut eta imajinatzen hasten naiz, pertsona horiek zer eginen zuten, zertan ibiliko ote ziren. Eta artxiboarekin hori gertatzen zait, eta nahi dudana asmatu dezaket. Nire oroitzapenak gaur egungo nire bizipenekin lotu nahi nituen, 2026an tokatu zaidan munduarekin eta amonari bizitzea tokatu zitzaion munduarekin. Nire egunerokoan eta hain gertukoa nuen emakume batek oso bizi ezberdina izan duelako, nirearekin alderatuta. Hain desberdina, niretako pelikula bat dela, berarendako nire bizia pelikula bat den bezala.

• **“Zoriontsu egingo zaituena aukeratu dezazun, zuk posible duzula” esaten zizun. Hauturik izan ez zuen belaunaldiari omenaldia ere al da?**

Bai, guztiz. Niretzako hori zen abiapuntua, belaunaldi horretan pentsatzea. Belaunaldi horretan eta baita hurrengoan eta gurean ere. “Hauts horretatik gaurko lohia” dugu, eta guk ere ahal izan duguna egin dugu, zenbaitetan.

• **LGTBIQ+ taldeen borroka ere jaso duzu, 70.-90. hamarkadetakoa. Beraz bidaia egiten duzu, zure amonatik hasi, gure aurreko belaunaldiaren borroka hartatik eta gaur egunera arte. Zer egin dezakegu jaso dugunarekin?**

LGTBIQ+ gaia, duela urte batzuetatik hona, zorionez, normalizatu da zerbait. Nahiz eta oraindik bidea luzea den eta asko gelditzen den, saltoa handia izan da. Duela 20 urte, ni institutoan nengoenean, adibidez, ez zen modu irekian hitz egiten. Ikastetxea nahiko handia zen, Burgosen, eta gogoan dut nola komentatzen zen bi lesbiana zeudela, bikotea zirela. Instituto oso batean bi lesbiana bakarrik ezagutzen ziren. Oso isilean zegoen gai bat zen. Herri mugimenduetan ere, nahiko inbisibilizatua. Hamar urtetik hona egunerokoan dago, eskoletan, tele-sailetan, eta, beraz, gehiago ikusten da. Genero identitate ezberdinak eta heteronormatik haratago doazen desirak beti existitu dira. Hori zen jolasa, genealogia bat egiten saiatzea, genealogiarik egin ez daitekeenean, inoiz ez zaiolako garrantzirik eman, baina mundu guztiak existitzen dela dakienean.

Isa Saez Perez

2013an *Escaramujo* ekoizetxea sortu zuen eta gaur irakaslea ere bada eta gustokoa du: “Beste lan bat bilatu dut maite dudan horretan, zinemagintzan, arnas pixka bat izateko, egonkortasun ekonomikoa eta sortzeko denbora eskaintzen dit. Autonomoa nintzenean eta ekoizetxea aurrera atera behar nuenean sortzeko prozesua mantsoagoa zen”. Talde lana aldarrikatzea gustatzen zaio eta 2019an *Zauriak* dokumentala kaleratu zuen Maider Irigoien Ulaiar eta Iker Oiz Elgorriagarekin. *Chicas prepago* laburmetraia ere entzutetsua izan zen. Atzera begiratzea eskatu diogu eta pozik ageri da ibilbidearekin: “Ongi dago noizean behin ariketa hori egitea eta norbere buruari esatea, ba bai, hemen nago eta bidea polita izan da. Espero ez nituen gauzak ikasi ditut eta espero ez nituen tokietara iritsi naiz”.

No estás sola, San Ferminetan gertatutako talde bortxaketa-
ren kontrako borroka kontatzen duen dokumentalean ('La manada' deituriko kasuan), edo *Tú no eres importante* Netflixeko tele-sailean ere lan egin du, Lekunberrin grabatua. Bietan, Itziar García *Los domingos* pelikularen ekoizpen zuzendariarekin lan egin du.



Hostoak eroriko direnean, Imotzen grabatutako laburmetraia ▲



La Raíz laburmetraiaren irudi bat ▲

• **Jolas horretan irudi asko daude, bata bestearen atzean, eta musika ere badago, niri 80. hamarkadako bideojokoen makinaren musika ekartzen dit gogora.**

Txanpon-makinarena. Zentzu jakin batekin jarri nuen, bai. Niri nerabezarotik gertatu zitzaidan nire desioa ere ez nuela ulertzen. Ez dakizu zer gustatzen zaizun eta zer ez. Ez dakizu zerbaite gustoko duzun esan ditzutelako gustatu behar zaizula, edo mundu guztiari gustatzen zaiolako, pertsona bat polita iruditzen zaizun edo egiten duena den gustatzen zaiuzuna, zalantzasu beteriko uneak dira. Garai horretan esaten zidan amonak aukeratzearena, ongi aukeratu egin behar nuela, nik aukera hori nuela. Eta nik pentsatzen nuen: "eta niri nork erakutsi dit aukeratu?".

“

Amonak ongi hautatu behar nuela esaten zidan, nik aukera hori nuela. Nik pentsatzen nuen, eta niri nork erakutsi dit aukeratu?

”

La Raíz. Zarena zarella, zu bezalako jendez betea dago historia

Valeria Castro musikariaren abesbate baten izenburua ere bada, Saezi asko gustatzen zaiona eta bere lanik intimoenetakoa dela aitortu digu. Gainera, bere lurraldearekin lotu du: amonarekin, egin bitartean; eta, Burgos eta Gaztelarekin behin amaituta, proiektioetan. Gainera, muntai onenaren saria jaso du Aguilar de Campooko jaialdian: "Burgosko (LGTBIQ+) historia nola izan den jakiteko gutxi jaso dut. Eta laburmetraia erantzunik handiena Gaztela eta Leonen izaten ari da. Pilo bat proiektatzen ari dira eta hori niretzako oso handia da. Ilusio handia egin zidan eta bereziki

muntaia onenaren saria, muntatzea asko disfrutatu nuelako, arlo hori landua zegoela ikusi izana gustatu zitzaidan". Memoria ariketa bat izanda, landa eremuan garrantzitsua: "Madril edo Bartzelona bezalako hiri handiek badituztelako erreferenteak -inoiz ez dago soberan- baina landa eremuan ez dago hainbeste eta gehiago behar dira". Asturiasen ere proiektatu du, besteak beste, eta Argentinan, Uruguayan, Colombian, Paraguayan, Ingalaterran, Frantzian, Portugalen eta baita Finlandian ere hautatu dute film jaialdian.



▲ Isa Saez filmatzen



Ermita eta bertako serorez

Dakigunez, XVII. mendean bazen Ermita bat Alkotzen San Salvador edo Salvatoreari eskainia, hortaz du **Salvatore** izena. Ez dakigu noiz eraiki zuten, baina aurki, mende hori baino frankoz lehenago bai. Joan den mendean, 40ko hamarkadan edo, ikusirik zeinen hondatua zegoen, herriak botatzea erabaki zuen. Orain ez da ia deus ageri seinale bakarren batzuk kenduta

Non dago kokatua?

Jakina, oraindik ere herrian gogoan dute nola jendea apezaz lagundurik joaten zen errogatibean Salvatoreara eta bertan egiten zituzten eskakizunak eta elizkizunak. Bertara, pentsatzen denez, **Zurgiñenetik** aitzina doan bidea har kanposantu aldera eta hau pasatu ondoren eskuin aldera doan pista hartu behar zen. Eta bertatik metro gutxitara zegoen ermita; hain zuzen, gain batean bada zelaigunetto bat eta bertan izaten zen ermita. Orain harri solte batzuk bertzerik ez dira ageri.

Ermitaua emakumea izaten zen

Ermita honek bizitza xume baterako ere bazuen leku aski, bertako arduradunaren estalpetarako. Deigarria egiten zaiguna da Serora edo Ermitau lana emakume batek egiten zuela eta hau da Ultzamako lehen kasua, ohikoa baitzen lan honetarako gizona izatea.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian ikusi ditugun dokumentuei esker dakigu xehetasuna da hau.

Lehen dokumentua 1739ko ekainaren 13koa da eta bertan Juan Labaien Agirre, **Iraizoko Dorrean** bizi zen eskirauaren aitzinean aurkeztu ziren Alkozko juratua (Alkatea) eta bertako auzoak, erranez bazutela herrian Salvatore zeritzan ermita bat. Eta ermita honetan berriki artio, bere kargu izan zuen ermitaua Juana izan zela, Ostizko alaba, baina

honen heriotzaren ondoren erabaki zutela lan horretarako Maria Miguel Beratsain, Eltsoko **Martineko** alaba izendatzea. Halaber, diote, izendatu ez ezik, horretarako giltza eman diotela, uzten dizkioten limosnak aprobetxatu ditzan.

1816ko abenduan berriz ere bildu ziren Ultzama Ibarreko eskirauaren aitzinean, Marcos Larumberenean, herriko apezka, Martin Francisco Gelbentzu eta herriko gainerako auzoak, eta denen izenak datoz: Pedro Juan Larraintzar Gaskue, **Bastagillenekoa**, Francisco Antonio Beruete Beratsain, **Apezte-gikoa**, Juan Martin Etsain Ostitz, **Maistarnekoa**, Esteban Prudencio Iriarte, **Etxeberrikoa**, Esteban Zenotz, **Eraxonekoa**, Juan Antonio Nuin Etsain, **Joanekoa** eta Antonio

Urrotz Indaberea, **Gurutzenekoa**. Egin beharra? Ermitau berria izendatu Salvatore ermitarako.

Diote, bizpahiru hilabete dela azken serora hil zela, Maria Francisca Aldeabesu, eta berria izendatzeko asmoz zetozela.

Pentsatua eta erabakia ere bazuten, jakina. Iraizoko emakume adindu bat zuten gogoko, eta Maria Josefa Iraizotz zen hori. Aurki-aurki, **Apezzenekoa** alaba zen hau. Izendatzea bizi den artiokoa izanen da.

Ermitauak arropa berezi bat eraman behar zuen, *ropón edo eskapulario* zeritzana, bere bizia bakardade handian izanen zen, ia-ia Ermitatik atera ere egin gabe, eta, batez ere, bizitza eredugarria izan behar zuen.



Martikonea. Honen eskuinean ageri da Ermita, doi-doi, iskin bat besterik ez. ▲



Alkozko panoramika bat. Hurbil-hurbilekoa ▲

Jakina, egiteko gutxi zuen, Ermita kasu egin eta garbi eduki, eta guzien gainetik erreztatza etortzen ziren eliztar guzien limosnak altxatu.

Posesioa hartzea

Posesio hartze zeremoniatsua egiten zen eta honela egin zela dio dokumentuak: "Ermitaren atean, 1816ko otsailaren 2an, eskirauak Josefa Iraizotz errezibitu zuen eta

eskutik helduz, Ermitara sartu zuen eta bertan zirenak atera ondoren tarte batean errezoak egin behar izan zituen.

Eskirauak atea ireki eta hertsu zuen bizpahiru aldiz eta horrela ermita edo serora barnean gelditurik, kargua onartuzat eman zuen"

Ermitaren fotografia falta dugu edo duguntxo oso-oso pobrera da. **Martikonearen** fotografia batean, aldamenean, juxtu-juxtu ageri da Ermitaren zati bat eta horrekin antzemanen diogu nolakoa zen eraikina kanpotik. Eraikin hau luzea eta meharra zen, aitzinean harrizko puntu erdiko ate batekin. Eta ezker aldean ageri da tximinia bat teilatua eta horrek iradokitzen digu bertan izanen zela bizitza. Leiho tiki batzuk ditu harri landuz inguratuak eta teilatua bi uretara.

Urteen buruan ermita hondatuz joan zen goiti erran dugun bezala herriak botatzea erabaki zuen artio XX. mendean.



Lourdes Iraizotz

Hiztegia

Eraiki: construir

Aurki: probablemente (Nafarroan edo toki gehiagotan du esanahi hori)

Mendea: siglo

Kokatu: colocar, situar

Hain zuzen: precisamente

Ermitaia: Ermitaño

Ohikoa: habitual, usual

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia: Archivo real y general de Navarra

Eskiraua: notario (Gure alderdian hala esan izan zaio)

Aurkeztu: presentar

Auzo: vecino (bezindadea zuena)

Izendatu: nombrar

Ibarra: valle

Zeritzana: que se llamaba

Bizi eredugarria: vida ejemplar

Altxatu: gorde (Ultzama aldean eta Baztanen hala esaten da)

Eraikina: construcción

Iradoi: sugerir

Pulunpeko zozketan saria doanik ematen duten ostatuak

Eskualdeko ostatu askok doanik eskaintzen dute saria eta hori izugarrizko laguntza da guretzako. Apurka-apurka aterako ditugu guztiak.



Orgi jatetxea:
San Simón 1 Lizaso
(Ultzama, Navarra)
948 305 126
orgirestante.com



Larraitzarko ostatua:
San Pedro, 27
31797 Larraitzar
948 30 50 77
@posada.larraitzar



Herri kirolak Emakumeen Hilabetea Ultzamako Udalaren martxoko programan



Maika Iraizotz ultzamarra harria jasotzen



Larraitzarko Ikastetxeko haur, guraso eta irakastekak, Korrika Txikian



Larraitzarko Ikastetxeko Korrika Txikia



Larraitzarko Ikastetxeko lan taldea Korrikako kilometroan



Maddalen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal bertsolariak Ultzamako bertso eskolako hurrekin



Maddalen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal bertsolariak, bete zen Larrantzarko Gizarte Etxean



San Migueli harrera, Erason



Irratiko edukiak nahieran, agenda, eta beste hamaika kontu!

Hilero bezala, apirilean zehar gure interneteko atarian argitaratu ditugun hainbat kontu ekarriko dizkizuegu orriotara. Dakizueenez, irratiko elkarrizketa, kolaborazio nahiz saiob ereziak entzungai dituzue

Kolaborazioak

Dakizueenez, kolaboratzaile sare finak egiten du posible gure irratiko eguneroko saioa, eta hilabete honetan ere gai eta proposamen desberdinak ekarri dizkigute. Esaterako, 'Spoiler Alert!' zinema kolaboraziora bi telesail eta pelikula gomendio bat ekarri zizkigu Jule Goñik: Dos fiscales pelikula, eta The Danish woman eta Kacken an der Havel telesailak. tartea.

Internazionalismo tartean, mende-baldean 'Ekialde Hurbila' deitzen diogun horretaz aritu zen Txuri Ollo goldaraztarra. Azken asteetan gure albistegiak betetzen dituzten herrialde horien egoeraz aritu ziztaigun, eta bide batez, 'Ekialde Hurbila' kontzeptu eurozentrista eta kolonialista dela salatzeke ere aprobetxatu zuen tartea.



Kolaborazioen errebasoarekin bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi Oihana Fernandez Iturria beslariak hilero egiten digun 'Disidentziak musikan' kolaborazioa. Hilabete honetan, Kongoko Errepublika Demokratikoko talde berezi bezain alaia ekarri digu: Staff Benda Bilili. "Begiratu itxuratik harago" esan nahi du taldearen ize-nak lingala hizkuntzan. Zergatik izen hori? Bada, entzun kolaborazioa!

Entzun



Entzun



Entzun



Memoriaren txokoan, Violet Gibson

Badakizue ostiraletan 'Egun Ero Kantuz' eta 'Memoriaren txokoa' irratsaioak txandakatzen ditugula. Azken honetan, atal berri bat emititu dugu apirilean: Violet Gibson ekintziale irlandarrari eskaini genion apirilaren 24ko saioa, izan ere, Benito Mussolini diktadore

faxista tirokatzeagatik egin zen ezagun irlandarra. Bere bizitzaren inguruan gehiago jakin nahi baduzu, entzun irratsaioa!



Entzun





Udaberriarekin batera, Mendialdeko Azoka Ibiltaria gurean da

Cederna Garalur landa garapenerako elkartearen berriak eta egitasmoak jasotzen ditugu hileroko kolaborazio honetan. Hilabete honetan, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren berri emateko aprobe txatu dute tartea

2026an Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 7. edizioa izanen dugu. Apirilaren 19an izan genuen lehenbiziko geldialdia Arriben (Araitz). Mendialdeko Elikadura Mahaiak bultzatuta, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Cederna Garalurreko Elikadura Dinamizatzaileak koordinatzen dute ekimena, eta tokiko udalekin eta beste zenbait eragilerekin batera antolatzen dituzte azokak.

Aurten, iaz bezala, herri bakoitzeko ekimen edo jai egun bereziekin batera ospatuko dira azokak. Araitzen kasuan, Artzain Usadioak egunaren baitan antolatu zuten ekimena, eta eskualdeko gazta eta gaztagileei egin zieten tokia, Mendialdean dagoen gazta aniztasuna ikusarazi nahian. Bi ekimen antolatu zituzten horretarako:

- Mendialdeko Gazten Dastaketa.
- Mendialdeko Baserritarren Gazta Lehiaketa Herrikoia. Guztira 15

gazta aurkeztu ziren, eta 60 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte dastaketan eta bozkaketan. Uztegi Antsoneako gazta urdina izan da irabazlea; bigarren postuan Leitzako Soroa baserriko ardi gazta gelditu zen; eta hirugarrenean, Aresoko Iruñegi baserriko ahuntz gazta.



Giro ederrean ospatu zen aurteko lehen azoka Arriben

Aurten bost azoka egingo dira, eta hauek izanen dira hurrengoak:

· Maiatzaren 17an, Lekunberrin,

Latxa Arrazako V. Enkante Nazionala

· Ekainaren 28an, Goldaritzen,

Xenden Eguna

· Irailaren 13an, Leitzan,

Talo Eguna

· Urriaren 11an, Areson,

V. Emakume Artzainen Eguna



▲ Gazta lehiaketako sarituak eta parte hartzaileetako batzuk



Etxalekuko Etxeberriko maisterrak

Herriaren pobretzea

Ernatonekoek beste etxeek ez bezala jokatu zuten, etxea bota eta berria egin beharrean, gainerako gehientsuenek egin zuten bezala, etxeari habearte berri bat eman eta, gainera, aldamenean etxetxo bat egitea erabaki zuten, seme bati emateko, ezkondu eta bertan bizi zedin. Ez dago gaizki pentsatua. Hori XVIII. mendearen bukaeran izan zen, orain 300 urte baino gehiago

Eta hala egin zuten. Etxeko seme ezkondu berriari eman zioten bizi zen artio goza zezan etxetxoaz, ondoren atzera bueltatzeko. Bizi zen arterako konponketa, baina aurrera begira? Ez zen okerrik izan, ez baitzuen umerik izan, eta senar-emazteak hil zirenean **Ernatone** zenak atzera jaso zuen etxetxoaren jabegoa.

Nonbait bizi behar eta bizitokirik aurkitzea ez zen erraza. XVIII. mendean zen hori, baina ez dugu garai haietara joan beharrik. Kontu berriagoetara joanen gara, nahiz aspaldi xamarrekoak izan.

XX. mendearen lehen erdiko maisterrak



▲ Ernatonea, zabal-zabala. Aldamenean Etxeberria (azpikoaldeko terraza hori orain 60 bat urte du emana)

Lehenbiziko familia

Azkeneko mendeko maistarrez ariko gara, hobeki esan, mendeko lehen 60 urtetako maistarrez.

1901eko urtean honako familia hau zegoen, Oskoztik etorri **berri-berria**:

Josefa Espinal Noain, 61 urtekoa, Aroztegiko alaba, joan den 56 urtean Imotzen bizi da (Senarra Oskozko Jose Bergareche Bengoechea izan zuen, 1881n Oskotzen hila bat-batean, 56 urtetan)

Seme-alabak:

1.-Juana Bergareche Espinal, 24 urtekoa, Oskozkoa, 1877ko azaroaren 23an jaioa. Bi aldiz ezkondu zen.

Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Neia,
urte bat!



Lehen senarrarekin Berueten bizitu zen. Ondoren, bigarrenarekin, Oskotz-Udabe-Itsason.

2.-Juan Bergareche Espinal, 21 urtekoa, Oskozkoa, 1880/02/28an jaioa. Hau ere ezkonduko zen eta Etxalekun biziko zen, nahiz oso gazterik hil.

Bigarren familia

1910eko Erroldan Etxeberrian ikusiko ditugu Argentinatik etorritako senar-emazte hauek:

Jose Landa Exposito, 1869koa, Eseribarkoa

Martina Senosiain Errea, 1870ekoa, Arraizkoa.



Etxeberria, orain berriki aurpegia berri aurrekoa ▲

Ordurako bazituzten umeak baina Erroldan ez datoz. Beharbada, Arraitzen edo utzi izanen zituzten Etxalekuko bizitokia antolatzeko. Denbora labur-laburrez egon ziren, berehala Marimigeleneko **Goitikoe-txera** pasatuko baitziren bizitzera. Familia honetaz beste noizbait idatziko dugu.

1911-1927 tartea

Tarte luze horretan nor bizi izan zen ez dugu topatu. 1920ko errolda ikusi dugu, baina urte horretan ez zen inor bizi. Dena dela, segurutzat jotzen dut familiaren bat bizi izanen zela tarteren batean, baina, ez udalean eta ez Elizako liburuetan ez dut arrastorik topatu.

1926-1930 artean familia berri bat, hirugarrena

Hona urte horretan topatu dugun familia:

Francisco Erviti Auza, 1852ko maiatzeko 4an jaioa Udaben eta bere andrea zen Maria Angela Otermin Auza, goldaraztarra sortzez.

Seme bat ere bai, Antonio Erviti Otermin hemen zuten, Buenos Airesen jaioa.

Familia hau, ume gehiagorekin, Beramendiko **Xarrajeron** bizitu zen

urte anitzez eta bertatik etorria zen Etxalekura 1926an edo.

Francisco 1929ko abenduaren 16an hil zen Etxalekun, zahartua, 76 urtetan.

Eta ondoren, oso laster, honen anaia Antonio etorri zen Itsasoko **Azpi-koetxetik**, 1930eko erroldan behintzat **Etxeberrian** ageri baitzaigu.

Gure ama neskatto ttikia zen orduan, baina gogoan izaten zuen nola Antonio **Turrutt** esaten zion jendeak argentinarrari, eta osabari **Palala**. Aurrenekoaren esanahia ez dago azaldu beharrik. Eta bigarrena, berriz, *Tranlarai* kantatzen zuenean *Tranlarai, palala...* kantatzen omen zuen, letra jakin ez eta.

Laugarren familia

1932 eta 1933ko urteetan ez zen inor bizitu aurki. Kontrolatua dugun hurrengo maistarra, 1934ko urtarriaren lehenean etorri zen familia dugu. Errolda ikusi dugu eta horrela da:

Pedro Ortigala Oneca, 38 urte, Artajonakoa.

Vicenta Machain Juambelz, 37 urte, Aizarozko **Portalekoa**.

Seme-alabak

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Etxalekuko Etxeberriko maisterrak

Ignacia Ortigala Machain, 8 urtekoa
Cristobal Ortigala Machain, 4 urtekoa

Miguel Ortigala Machain, urtebetekoa, Etxalekukoa.

Lehenik Gartzarongo **Mitxotoneko bordan** bizitu ziren eta bi haur zaharrenak bertan jaio ziren, ustez

Gerra ondoren, 1940an edo Errenteriarra joan zen familia hau.

Lanik ezaren ondorio larria.

Gerra ondoren Gipuzkoara emigratio handia izan zen, herri hauek hala ere eutsi zioten hein batean, ume asko jaiotzen baitzen. Dena dela, hemen lanik ez eta, esan dugun bezala, jende askok alde egin zuen Gipuzkoara. Herri batzuetan familia osoak. Bai, ondorio larriak ekarri zituen egoera hark, herrietako giroa moteldu zen.

Bosgarren familia: katalanak Etxalekun (1941-1946)

Ortigalatarrak hutsik utzi zutenean etxea, laster samar, beste familia

bat bizitu zen Etxeberrian. "Katalanak" deitzen zituzten.

Honakoa zen familia:

-Salvador Jover Mira, Bartzelonakoa.

-Filomena Aldabe Ciganda, 1904/05/10ean sortua Muskizko

Aldaben etxean.

Seme-alabak

Salvador Jover Aldave, 1931/01/31n jaioa, Zaragozan.

Felicidad Jover Aldave, 1933/03/23an jaioa, Zaragozan.

Jose Miguel Jover Aldave, 1941/05/27an, jaioa Iruñean.

Etxalekura etorri orduko geldituko zen alargun Filomena.

Euskaraz ikasi ote zuten? Erdias aitzuten yittun, orain berriki hori esan didate.

Bigarren ezkontza: 1946ko apirilaren 24an bigarren aldiz ezkondu zen Filomena, Etxalekun, Egiarretako Silverio Echarte Latasarekin, eta ustez Iruñera joan ziren.

Azken maistarra eta seigarrena, 1953an etorri zena

Etxe honetako azken maistarra:

Igoatik etorri zen alargun bat bere alaba batekin:

Teresa Alsua Arrechea, 1919/06/16an sortua Igoan.

Alabak

Manuela Balda Alsua, 1947/10/29koa.

Maria Teresa Balda Alsua, 1950/07/06koa. Dena dela, ez da bertan bizi. Bere osaba-izebekin Igoan gelditu baitzen.

Emakume galtzei puntuak hartzen ateratzen zuen bizitza eta herriko maistra, Silvia Marotta ere etxean izaten zuten apopilo.

1960ko urtean edo, ustez, joan ziren Iruñera.

1960ko hamarkadako golpe handiago izan zen

Bai, Iruñerriko industrializazio handiak eta herri hauen ahultasunak zer nolako ondorioak utzi zituen gure alderdian?

Ondorio larriak oso, jende gazte askoren alde egitea, fabriketara batez ere, eta hori aski ez zela, modu prekario batean bizi ziren maister ia guziak gure alderdia utzi eta Iruñerrira alde egin zuten. Izugarriko huste larria izan zen, gure herriak erdira etorri ziren, kontzejuek nahiz diruz hobera besterik egin ez, gizartea ahuldu egin zen, indarrez xahutu, pobretu eta birrintu egin zen. Hor dago koxka, nahiz norbanakoa diruz aberastu, gizarteak bizitza pobretze larri bat nozitu zuen. Eta hustutze honek ez du etenik izan, zoritxarrez, makaltzen ari baikara. Udalek zerbait egiteko prest ote daude? Noiz ulertu behar ote dute egiten dituzten obrek ez dela konpontzen arazo larri hau? Horietan dirua botata, zer uste dute, herri hauek berpiztuko direla? Pentsamoldea da aldatu behar dena eta horretarako beste neurri batzuk hartu behar dira. "Betikoa eginaz, betiko emaitzak izaten dira"



Etxeberria, orain urte bat edo, konpontzen ari zirela. ▲

Gure eskoletan

euskara beharrezkoa al da?

Ardo frexkotik



Bai, hil ala bizikoa da!

Dirudienez, ikasleen gehiengo zabal batek euskaraz ulertzeko orduan zailtasunak izaten ditu. Eta mintzatzerakoan zer esanik ez. Eta euskara informalean are eta are okerrago ari dira. Esaldi eginak, lokuzioak, euskal azentua eta habearte ia-ia larrugorrian dago

Euskara erakusteko gaur erabiltzen den metodologia zuzena al da? Eta euskaraz ariarazteko? Ez dirudi. Eta mintzatzeko maila minimo bat ez bada, euskaldun motza badugu ikaslea, horrek nozituko duena larria izanen da.

Horrelako egoerak eragina erabatekoa izanen du geroan gure ikaslearengan bere ikasketak aurrera ateratzeko.

Euskara formala ikasi ez, bi esaldietatik bat gaizki esaten badu, euskaraz jakitea dela deritzozu?

Euskarazko egunkari bat irakurri eta ulertzeko gai ez bada eta erdarazkoa bai, zertan ari gara D ereduari? Hau dena idatzi kontuetan, eta ikus-entzuzkoetan? Gazteen artean sumatu dut ETB1n euskal pilotako esataria arrotz zaiela. Eta ziklismoko Usabiaga bikainaren solasa ulergaitza! Oker ote nabil nire susmoetan? Ez dut uste, susmoak baino gehiago dira, ebidentziak dira.

Nongo eskoletan sartzen dute beren hezkuntza-planean euskaraz ikastea, ongi ikastea, lehen postuan? Ez

lehenean eta ez azkenean; askok eta askok ez dute euskara kontutan hartu ere eginen!

Zergatik ez da euskara ikastea lehen lerrora pasatzen, gero materien ikasketetan, hizkuntza errez ulertu eta idatzi behar denean, gauzak ongi egin ditzagun? **Ikasketak ongi eramateko hizkuntza ongi jakin behar da.**

Erdipurdi, erdiskal gauzak egin eta hizkuntza nazionala lurrean. Hori horrela ote den nago eskola askotan. Nire belarriek toki askotan hori dute antzematen eta ez dut uste tronpatua nagoenik.

Nolako kalteak nozituko ditu horrela hezitako nerabeak? Euskaraz gaizki, ikasketa gaietan ere bai! Honek ez du aterabiderik!

Eta bukatzeko, hizkuntza batek aurrera eginen du **beharrezkoa** baldin bada. Gurasoak euskaldunak badira etxean beharrezkoa egin beharko dute. Edo bietako bat euskalduna bada horrek beharrezkoa egin beharko du bere hizkuntza.

Beharrezkoa. Hori gurasoen esku dago.

Baina eskoletan? Eskoletan **beharrezkoa eta bakarra** beharko du izan. Beharrezkoa irakasle-ikasleen artean eta nahi eta nahiezkoa ikasleen artean. Eta **bakarra**, esan dudana bezala. Legeak eta agindu foralak besterik diotela? Ba, euskaldunok euskaldun izateari ez diogu uko eginen. Ardo frexkoa bai, ozpinduak... Badakizu, kontzientzia-objekzioa ere hor dago. Hemen, bizi ala hil, ez dago besterik. Eta gora ardo frexkoa!



Txurdan

Hiztegia

- Euskara informala:** elkarrekin solasean aritzean erabiltzen dugun hizkera.
- Esaldi eginak:** frases hechas.
- Lokuzioak:** bi edo hiru hitzekin sortzen den esanahi berezi bat. Adibidez, pilotan: "partida bildu", irabazi du esan beharrean.
- Nozitu:** soportar, purgar.
- Eragina:** influencia.
- Deritzozu?:** iduritzen zaizu?
- Esataria:** locutor (pilotakoa Eguzkitze famatua da).
- Ulergaitza:** incomprendible
- Erdiskal:** gauzak bukatu gabe utzi, erdi eginak utzi.
- Tronpatu:** engainatu.
- Nozitu:** padecer (Nafarroa guzian bederen erabiltzen den hitza da).
- Nerabea:** adolescente.
- Kontzientzia-objekzioa:** Objecion de conciencia.



Larraintzarren 1909an egin zuten eskola dotore eta handia



Ehun ekitaldi trostan

Lizasoko komunari buruzko pelikula bat, txontxongiloak eta blues kontzertu bat dira, besteak beste, maiatzean aukeran izanen ditugun ekitaldi kulturalak


Liburuaren Eguna izan zen pasa den apirilaren 23an eta liburutegian merezi duen bezala ospatu genuen: liburu bat (*Ehun zaldi trostan*) irakurtzen eta komentatzen. Gutxi izango balitz, obraren egilea etorri zen gure-ra. Ane Urien izan zen gure gonbidatua, Literatur Geraldia egitasmoari esker. Horregatik guztiagatik liburu gomendioarekin hasiko gara hilabete honetako kolaborazioan. Eta aukeratu dugun liburua, jakina, *Ehun zaldi trostan* da. Gomendioa, gainera, ez da bakarrik liburuzain honena. Ultzamako euskarazko irakurle klubean irakurri dugu

Ane Urien fizkiozko lehen lana eta ados egon gara guztiok: izugarri gustatu zaigu (eta hori ez da erraza, normalean liburuak ez zaizgulako denoi gustatzen edo interesgarriak iruditzen... horrela gertatzen denean bilerak animatuagoak dira, behintzat). Eta zegartik gustatu zaigu hainbeste ipuin bilduma edo ipuinez osatutako nobela? Edo ez bata eta ez bestea ez den liburu hau? Landa eremuaren erretratua egiten duelako: animaliak, usainak, natura... Baserritik hirira bidaia egiten duelako (gu bezalako hainbeste bezala). Egileak gauza txiki-iki buruz idazten duelako (gauzak txikiak handiagoak dira geheienetan: eguneroko gauzak, egunero ikusten ditugun pertsonak, inporta zaizkigun pertsonak edo gauzak, azken batean). Hau da, beraz, gure hilabete honetako gomendioa eta hau liburuaren kontzertuak esaten duena:

“A-8 autopistaren mutur batetik bestera bizi da kontakizun-sorta honetako protagonista, hiriaren eta baserriaren artean, bakoitzak bere nortasunaren alde bat elikatzen diola. Era askotako indarrek egiten dute talka bere baitan: habitat motek, harreman klase askotarikoek, erreferentzia kultural desberdinek? Irenegandik abiatu eta pertsonaia-gama ñabar bat zabaltzen da istorio hauetan zehar, denak ere txirikorda batean korapilatatuak, ipuinetik eleberrira doan bide batean legez. Gutxitan bezalako hizkera zehatz eta aberatsez ondua da Ignacio Aldecoa beka irabazitako lan hau, kontatzen duen munduari guztiz doitua eta lotua”.

Pintura puzlea eta munduko puzlea

Trostan ibiltzen da gure programazioa ere eta maiatzean hainbat proposamen ditugu. Erakusketarekin hasiko gara, edo, hobe esanda, erakusketekin, bi izango direlako: orain dagoena (gogoratu, Mikel Santos “Belatz”-en ilustrazio orijinalak) hilaren erdira luzatuko da eta hortik aurrera, ekaina bukatu arte, ikusgai izango da **Pintura puzlea** izeneko erakusketa. Egilea Lourdes Gorostieta da, “Goros”, Ultzamaldeko bizilaguna. “Goros”-ek bere puzlea osatzeko, bi motatako piezak sortzen ditu. Batzuetan, bere margolari gogokoenen koadroak erreproduzitzen ditu bere erara, urrutikoak edo espazioan eta denboran gertukoak. Beste batzuetan, berezi maite dituen lekuak islatzen ditu, sentitutako emozioak. Kolorearen oreka bilatzen du emaitza harmoniatsua lortzeko.





Programazioari dagokionez **maiatzaren 8an** izanda hilabete honetako lehengo jarduera: Carlos Aznarezekin **LA IMPRESCINDIBLE NECESIDAD DE LA SOLIDARIDAD CON CUBA** hitzaldia izan dugu. Carlos Aznarez *Resumen latinoamericano* aldizkariaren zuzendaria da. Carlosek Kubak Estatu Batuen blokeoaren eta mehatxuen aurrean bizi duen egoeraz eta Cubarekiko elkartasun internazionalista sendotzeko beharraz hitz egin digu. Puri purian dagoen gai bat, beraz, eta tamalez.

Lizasoko komunan oinarritutako film bat

Eta leku berea eta ordua berean, baina **maiatzaren 15ean** beste gai batekin jarraituko dugu. Irati Gorostidiren **Aro Berria** filmaren proiektzioa da. Filmaren argudioa honako hau da:

Donostia, 1978. Ur-kontagailuen fabrikako langileak batzarrean bildu dira greba bat eztabaidatzeko, baina azkenean ez du aurrera egiten. Etsipenak jota, batzuek fabrika utzi eta komunitate batean integratzen dira. Bertan, dozenaka gaztek bilaketa bizia egiten dute esperientzia katartiko partekatuen bidez”.

Askori ezaguna egingo zaie istorioa, filma Lizasoko Arco Iris komunan oinarritzen delako. Bertan, Irati Gorostidi zuzendariaren aitak eta amak hartu zuten parte. Irati duela bizpahiru urte beste film batekin ere egon zen, *San Simón 62*, Lizasoren komunari buruzko dokumentala. Egun hartan aretoa bete egin zen, eta hala izatea espero dugu oraingo honetan. Gainera, zuzendariarekin hitz egiten saiatuko gara, telefonoz.

Ez egin piperra, oh yeah!

Maiatzaren 22an txikientzako jarduera batekin jarraituko dugu. Txotxongiloak Teatro Firuleteren eta **Basoa antzelanaren** eskutik: “Uxue kezkatu dago, bere amonaxoa itzaltzeaz baitago. Basoaren sakontasunean murgildu nahi du, laguntzaren bila.. Basoan sartzen doan heinean, natura gerroz eta misteriotsuagoa izango da, bertan topatuko dituen pertsonaiak magikoagoak eta haiengandik jasoko dituen irakaspenak sakonagoak”.


Nerea Orejak eta Marcos Vilelak, Teatro Firulete titere konpainiako kideek, zuzeneko musika eskainiko



dute. **18:00etan** izango da. Familia osoa animatzen dugu egon zen. Badakigu udaberria etorri dela eta oso gustura egoten dela katean, eguzkipean, baina titere konpainia ospetsu bat ikusteko aukera paregabea da hau (Ez dakigu nola esan, baina prestatu ditugun haurrentzako azken ekitaldian piperra egin duzue, eta pena da, lan handia dagoelako artisten lanaren atzean).

Eta hilabetea amaitzeko kontzertu bat, blues kontzertu bat eta kasu honetan Lanzko herriko plazan izango: **JAC ELECTRIC** taldea. JAC Electric Iban Larreboure, Louise Tossut eta JACek osatutako blues-rock hirukotea da. Lehen diskoa, NOW (El Gringo, 2025), aurkeztuko dute, zuzeneko indartsu batekin, hurbilekoa eta energiak bete, mota guztietako publikoekin lotzen duena.

Maiatzaren 29an, 19:00etan, Lanzko Herriko plazan, oh yeah!

 Patxi Irurzun





Bakarrik dauden adingabe migratzaileendako harrera familia bila

Berriztu Elkarteak, Nafarroako Gobernuaren bultzadarekin, lagundu gabeko adingabe migratzaileentzako harrera-familiak bilatzeko proiektua jarri du martxan Nafarroan. Haur eta gazteen ongizate emozionala bultzatzeko eta ingurune hurbila eskaintzeko helburua du egitasmoak. Martxoaren 30ean Larrainzarren izan ziren proiektua aurkezten



“

**Ez ditugu familia
perfektuak
bilatzen, harrera
egin nahi duten
benetazko familiak
baizik”**

”

Gaur egun lagundu gabeko 200 adingabe migratzaile baino gehiago daude Nafarroan, elkartearen arabera, eta babes-sistemak dituen 57 egoitza-baliabideetan artatzen dira guztiak. Adingabeen instituzionalizazioari erantzun alternatiboa emateko helburuarekin jarri zuten abianiazko urrian Berriztu Elkartearen Harrera programa. “Haur eta gazte horiek sistemaren barruan hazteaz gain, haien ongizate emozionala areagotzeko eta integrazio-aukerak hobetzeko familia edo ingurune hurbil baten babesa bilatu nahi dugu”, adierazi zuen Esan Erran irratian Amaia Etxeberria elkarteko kideak. Harrera familia izateak inplikaturako pertsonen esperientzia aberasgarria ematen diela ere gogorarazi


zuen, izan ere, bestelako errealitateak eta bizi esperientziak dituzten pertsonekin harremanetzeko eta haiekin gauza desberdinak partekatzeko aukera ematen diete.

Harrera-familiak, elkartearen laguntza eta babesarekin

Harrera prozesuan parte hartu nahi duten pertsona eta taldeek Berriztu Elkartearen laguntza izanen dute etengabe. “Lehen urratsa Harrera proiektuarekin harremanetan jartzea litzateke, eta aurrez aurreko topaketa bat eginen genuke haiekin pertsonak edo familiak behar duena ongi jasotzeko. Aurrera egitea erabakitzen badute, familia-harreraren eskaera beteko da eta erregistroan aurkeztu eta gero, prozedura mar-

txan jarriko da Nafarroako Gobernuan”, azaldu zituen segitu beharreko pausoak Etxeberriak. Pertsona edo familia harrera egiteko prest dagoen eta adingabearentzat ingurune segurua eskaintzen duen baloratuko da orduan, eta behin hori eginda, esleipen-prozesua hasi eta bi aldeek topaketa erraztuko da.

Migrazio prozesuei dagokionez, elkarteko kideak nabarmendu zuen askotariko bizipenak izaten dituztela haur eta gaztetxoek. “Bide desberdinak daude hona iristeko, batzuk pateraz egiten dute bidaia, baina beste askok hegazkinez edo beste garraiobide batzuetan iristen dira. Dena dela, ibilbide gogorrei buruz ari gara, kontuan hartuta haurrak eta nerabeak direla, eta



“

Eguneroko elkarbizitarik gabeko harrera proiektuan ere parte har dezakete herritarrek

”

familiarekin, haien kulturarekin eta bizitzarekin hautsi behar izan dutela oso gaztetan”, zioen. Edozein pertsonak bezala, talde eta inguru baten parte sentitzeko beharra dutela gaineratu zuen, maitatuak sentitzeko eta hurbilean erreferenteak izateko beharra. “Zer behar duten galdetzen diegunean, adingabe gehienek diote haien bizitza garatzeko, ikasteko, lan egiteko eta gustuko jarduerak egiteko babesa nahi dutela, gizarteak hemen nola

funtzionatzen duen ulertzeko aukerak izatea”, zioen.

Behin eta berriz errepikatzen dute elkartetik: ez dira familia perfektuak bilatzen, benetako familiak baizik, edozein dela eredia eta forma. “Presente egonen direnak, entzunen dutenak eta egonkortasuna eskaini dezaketenak, hori da garrantzitsuenak”, zioen.

Elkarbizitzarekin edo gabe, harre-rarako bi aukerak

Etxean haur edo gaztea jasotzen dutenek elkarbizitzadun harre-ra proiektuan hartuko dute parte, baina etengabeko elkarbizitarik gabeko harrera programa ere badago martxan. Zer esan nahi du horrek? Elkarrekin bizi gabe eta egunerokoan etxean elkarbizitarik izan gabe, gazteendako erreferente izatea eta laguntza eskaintzea. “Arratsaldeetan, asteburuetan edo oporretan elkarbizitza izatea litzateke aukera bat, esaterako”, zioen elkarteko kideak.

Momentuz, proiektua harrera oso ona izaten ari dela azaldu zuen Etxeberriak, eta hasiera batean beren burua egitasmoan parte hartzeko gai ikusten ez zuen pertsona asko planteatzen hasi direla sumatu dute. “Dagoeneko familia batzuk gurekin harremanetan jarri dira eta lehen eskaerak ere iristen ari dira”, adierazi zuen. Jendeak izan ditzakeen hasierako zalantza eta beldurrak normalak direla zioen, baina horretan guztian laguntzeko dagoela elkarrekin. “Garrantzitsuena ezagutzeko, lotzeko eta partekatzeko gogoia izatea da, gainerakoa pixkanaka eraikitzen joanen gara”, zioen.

Orain arteko ibilbidean Burlatan, Erronkarin, Zizurren, Larraintzarren, Uhartan, Mutiloan nahiz Larragan izan dira Berriztuko Harrera proiektuko kideak, eta aurkezpen hitzaldi gehiago ematen segituko dute Nafarroako lurraldean barrena. “Komunitateko Gizarte-Zerbitzuetako eremu guztietara bertaratu nahi dugu, eta sare instituzional eta komunitario sendoa eraiki”.

Harrera proiektuaren gainean gehiago jakin nahi?

· Deitu **948 319 766** eta **686 199 095** telefonoetara

· Idatzi **resp.harrera@berriztu.com** helbidera

· Bisitatu elkarrearen webgunea: **www.berriztu.com**

· Segi itzazue elkarrearen sare sozialak: **@harreraberriztu**





Heriotza eta dolua

“Heriotza guztiak desberdinak dira eta kasu bakoitza modu indibidualean lantzen dugu”

Nafarroa Garaiko Izarra tanatorioetako jabea da Mikel Legarra goldaraztarra. Duela hamar urte inguru abiatu zuten egitasmoa Mikel Idoatek eta berak, eta gaur egun 13 beilatoki dituzte herrialdean zehar. Heriotzaren eta doluaren inguruan solastu zen imoztarra Irulegiko Irratiko ‘Hostokadak’ saioan, eta elkarrizketa ekarri dugu orriotara

Tanatorioa, beilatokia, ehorzketa zerbitzuak... zehaztuko diguzu zer egiten duzuen Izarran?

Tira, guk Izarra sortu genuenean, izenetik beretik esan nahi genuen zerbait: guretzat, hildako bakoitza izar bat da, berezia eta bakarra, eta beraz, banaka aztertu beharreko

entea. Hildakoeekin lan egiten dugu-nez, tanatorio eta beilatoki zerbitzuak eskaintzen ditugu. Nafarroa Garaian tanatorioa eta beilatokia ez dira gauza bera, baldintza desberdinak bete behar dituzte eraikinek. Lehenengoan kirurjiak ere egiten dira, eta bigarrena gehiago da agurra eamteko tokia.

Zeintzuk dira zerbitzu horietako bakoitzaren berezitasunak?

‘Tanato’ horretan bi maila egoten dira: tanatopraxia eta tanatoestetika. Batean, esan bezala, kirurjia egoten da, gorpuak istrupren bat edo jasanb adu egokitu egiten dira, medikuntzan bezalaxe. Eta, bestean, agur normal baten kasuan, lanketa estetikoa izaten da gehiago: gorpu horrek ahalik eta itxura gaurkotuen izan dezan saiatzen gara, agurrerako bera den bezala azaltzeko.

Agurra egiteko manera ere bada doluan laguntzeko modu bat, ezta?

Bai, doluan denak du garrantzia. Heriotza kasu bakoitza izate bat da, atmosfera bat du, errealitate bat, ingurune bat, kasu bakoitzaren bizitza desberdina da... beraz, gure ustez, kasu bakoitza errespetatu behar da eta doluan hori guztia kontuan izan beharko da, modu indibidualean landuz.

Heriotzaren aurrean, legez bete beharreko ordutegiak-eta izaten dira?

Legalki, guk 24 orduko gutxienekoa dugu, baina gehieneko ordurik ez dago jarrita, ingurukoek erabakitzen dute zenbat denboraz eduki gorpuak. Normalki jendeak nahiago izaten du 24-30 ordutan gauzak eginak utzi,



Mikel Idoate eta Mikel Legarra, Izarra tanatorioetako kideak



baina kasu bakoitza mundu bat da, eta familiarentzat egokiena dena lantzen dugu, lasaitasunez erabakita eta inongo beldurrik edo obligaziorik gabe. Bestalde, hor eskubide desberdinak ere sartzen dira: bate-tik, hildakoak erabaki duenarekiko errespetua, hitzez edo idatziz utzi dezaketelako haien nahia eta hori errespetatu beharra dagoelako. Baina, bestetik, doluan daudenen eskubideak ere hor daude. Adibidez, demagun joan denak esan duela ez duela lorerik nahi, bada, bere eskubidea da, baina nik hildako horri loreak eraman nahi badizkiot, nire eskubidea ere badut, dolua egiten ari naizelako. Uste dut eskubideek bata bestearen ondoan egon behar dutela, ez bata bestearen gainetik.

Egiteko manierak, lekuen arkitekturak eta apainketak helburu konkretuekin egindako hautuak dira?

Izarra tanatorioetan hainbat taburekin hausten saiatzen gara, esaterako, espazioari indarra emanez. Gaia berez nahiko tristea izanik, tristura gehiago ez gehitzen saiatzen gara, toki irekiak eta argitsuak eskainiz, zuria beltza baino gehiago erabiliz, musika eta usaimena ere landuz... bestetik, hurbiltasunari ere garrantzia handia ematen diogu, alegia, hildakoa bizi izan den tokitik ahalik eta hurbilen egoteari eta bere inguruarekin lotura egiteari. Adibidez, tokiko hitzak eta esaerak erabiltzen ditugu lokaletan, uste dugulako pertsona horrek merezi duela agur egoki bat egitea.

“ Beldurra sortzen du heriotzak, baina uste dut adiskidetu beharko ginatekeela ”

Garai batean hildakoaren gorpua etxean izaten zen, horri buruz zer esanen zenuke?

Bai, jendeak oraindik galdetzen du, zergatik ez egin etxean agurra? Tira, gai honetan nik pentsatzen dut, salbuespenak salbuespen, agurra etxetik kanpo egitea egokiagoa izan daitekeela, edo behintzat hainbat onura dituela: etxean egitean, agian tokia ez dago ongi atondua eta inguruko jendeak bere doluan lasai egon beharrean etxea txukuntzeko lana hartu beharra du; batzuetan badira pertsonak etxe horretakoekin duten harremanagatik zail zaiena bertara sartzea; gorpua beilatokian egonda, doluan dagoen pertsona bat momentu batean etxera joan daiteke deskantsatzera edo bakarrik egotera, bestela derrigortua dago jendez inguratua egotea... badira gauzak.

Kapitalismoaren atzaparrak sentitzen dira heriotzaren bueltan ere?

Bai, noski, gizarteko beste esparru guztietan bezala hemen ere aldaketa handiak egon dira eta multinazionalak gogor sartu dira, bertako enpresa txikiei zailtasunak eraginez. Nire ustez heriotza bat bertako jendearena da, bertako jendeak egiten duen azken gastua izaten da, eta gizarte horretan gelditu beharko luke, tokiko ekonomiari lotuta. Guk bertakotasun horri lotuak segitu nahi dugu, eta Nafarroa Garaitik beste herrialdeetara zabaltzea ez



Izarra tanatorioa Altsasun ▲



Heriotza eta dolua

“

Bizitzan zehar oso gutxi hitz egiten dugu heriotzaz, eta hor hutsune handia dago

”

dugu baztertzen, baina zonalde bakoitzeko herritarrekin izanen lizateke. Bertako kultura, hezkuntza, hizkuntza eta ohiturei bide propio eta hurbilekoa ematen saiatzen gara, eta ekonomia ere horri lotua dago.

Zentzu horretan, zuen manera nahiko artisaua dela esan daiteke, beste eredu industrialagoen aurrean?

Ez dakit industrialia deituko nukeen, pentsatzen dut besterak ere saiatzen direla alde humanotik egiten, baina guretzat, esan bezala, bertakotasunak agur eta dolu prozesuan presentegon beharra dute. Multinazional askok eraikuntza handiak egiten dituzte, eta ideia da 'hildakoa etor dadila gugana'. Guk, alderantziz egiten dugu lan: eraikuntza txikiagoak ditugu, eta gu goaz jendearengana. Filosofia hori askoz ere hurbilagoa eta sozialagoa dela uste dut. Enpresa pribatua gara, baina nik beti esaten dut zerbitzu publikoa alde pribatutik ematen saiatzen garela.

Gure jendartean heriotzak tabu izaten segitzen du, ze gogoeta eginen zenuke horren inguruan?

Nire iritzia da hau, eta filosofiatik asko du, baina jaiotzean hiltzen hasten garela esaten dut nik, edozein momentutan etor daitekeen zerbait da, eta ez genuke zertan zerbait txarizat hartu behar. Zer gertatzen da? Bada, bizitzan zehar ez dugula honetaz hitz egiten, ez dugula lantzen, ikastetxeetan ere ez da gehiegi aipatzen... orain arte elizaren bidez egin da lanketa handiagoa, baina gaur egungo gizartean hutsunea dagoela uste dut. Beldurra eta ezjakintasuna sortzen du heriotzak, baina uste dut jendartean gaia beste modu batean landuko balitz, heriotzarekin adiskidetuko bagina, bizitza sanoagoa edukitzeko aukera izanen genukeela.



Heriotzean ere, euskaraz

Euskaraz eta gazteleraz, bietan eskaintzen dituzte zerbitzuak Izarran. "Ederra da gure hizkuntza, heriotza 'eri' eta 'hotz' hitzetatik dator, 'eri beroa' ospitalekoa izanen lizateke, eta hozten direnean hiltzen dira. Aberatsa da gure hizkuntza, eta uste dugu errespetuaz hitz egiten badugu, hizkuntza ere badela errespetu kontua. Horregatik, bi hizkuntzatan egiten dugu guk lan: bai hitzez, bai idatziz, eta baita ingurua prestatzean ere".

EUROPA, ZUGANDIK 0 KM-RA

EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAK IKASLEEN ETA IRAKASLEEN
MUGIKORTASUN AKADEMIKOA FINANTZATZEN DU, MUGETATIK
HARAGOKO IKASKUNTZA ETA HAZKUNDEA HOBETUZ.

ERASMUS+ PROGRAMA
NUP CAMPUSA.



INFORMAZIO +

EUROPAKO ASTEA NAFARROAN
MAIATZAREN 4TIK 9RA



EUROPE DIRECT
Navarra · Nafarroa

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA † **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Ixabel

joan zaigu

Mikeleneko etxekoandreak utzi gaitu Ixabel joan zaigu

89 urtetan utzi gaitu Ixabel Igeltz Azpirotzek. Aspaldian zegoen oraingo eritasun moderno hauetakoren batekin, ez dakit alzheimer zen edo antzekoren bat. Urteren bat bada azkeneko aldiz hizketan egon nintzela berarekin, ongi xamur, alegera, erabat irripartsu... ea ezagutzen ninduen eta: *ez dizut ezautu biar ba! Aixel!*

Hala ere gure iharduki motza beste bide batetik eraman nahi izan nuen. Alai-alai, ederki jantzia, bere karrotxoan zeramaten paseora ezkontza batera balihoa bezala. Hala zen, gaitz eta guzi, jarrera ezin hobea!

Aztarrainen jaio eta gero **Milekele-nera** ezkondu eta lau ume hazi zituen andre baliente honetaz zerbait esan gabe ezin gelditu. Hala da eta dena dela, bere hil elizkizunetan, Luis bere anaiak esandakoak hor daude. Gazte alargundu, pasatu behar izan zituen lanez eta nekez ere ez dugu ihardu-

kiko. Aipatu, aipatzekotan, hor daude gazte eta ez hainen gazte garaian herri guzian injekzio jartzen ibilitako denborak. Edo, eliza apaintzen edo egunero arrosarioa ematen pasatuko urteak. Borondatea eta jarrera, elizkoa izateaz at. Borondatea eta jarrera!

Politikan sartua: alkate

Inork gutxi esperoko zuen Isabel Imotz udaleko goi karguan ikusiko genuenik, emakume gutxi baitzen orduan lan horietan, eta gutxiago zuen adinean, 55 urte baitzituen, baina

eskatu zitzaion eta baiezkoa eman zuen; ausarta izaki Isabel!

Eta bere denboran egin zen udaletxea, nahiz aurreko alkateak, Joaquin Erbiti Aroztegik tramiteak eginak izan ordurako, paper guziak eginak eta prest-presta.

Sos gutxi zen orduan, baina Isabelek ez zuen atzera egin, ez horixe! Jakin zuen xoxak handik eta hemendik ateratzen. Eta ez zen erraza izan, ustekabeko oztopoak agertzen baitira horrelakoetan.

Pilotaleku berri eta estaliaren aferra ere berak eraman zuen aurrera eta buru eman, oztopotxoak eta ezin ulertuak izan ziren garai hartan. Latastan jarri zen pilotalekua eta asmatu zen. Geroak erakutsi du punturik hoberena zela pilotalekuari erabilera emateko.

Bai, zerbait izatekotan, fierra izan dela esanen nuke. Ausarta, langilea eta elizkoa. Eta errepikakor banaiz ere eta hitz batez bukatzeko, *emakume fierra* izan zen, gure aurrekoek esan izan duten bezala gizaki langile, baliente eta hitzekoez.

Gauza asko gelditu dira esan gabe, baina honako hau ez nuke inola ere utzi nahi gogoan gordea: besteak beste, Joana Mari bere alaba gazteenak erakutsi duen iraupena, jarrera eta goxotasuna amarekin! Honek bere atten eta amaren geneak izaki. Eta eskerrak hola izan den! Halaxe eraman ditu amaren azken urteak. Besarkada bat Pulunpetik, Joana Mari eta senide guziei.



Ixabel Igeltz Azpirotz ▲

2026ko martxoan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

ULTZAMA

Auza

Iraitz Huarte Iraizotz, martxoaren 7an sortua, Koldo eta Sandraren semea.



▲ Iraitz. Aimar anaia, begira-begira

Ezkontzak:

Inor ezkondu denik ez dugu jakin.

“ Beti izanen
zaitugu
gogoan ”

Heriotzak:

BASABURUA

Gartzaron

Jesus Leon Satrustegi Oskotz, **Jurdaneko** nagusia, martxoaren 21ean hil zen 80 urtetan.



▲ Jexus Leon

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ - argapin@hotmail.com

Zer egin genezake gure haurren ingurua euskaldunagoa izateko?



**Maiatzaren
7tik 17ra**

